



37. jazzaldia

Hizkuntza erabileraren neurketa

Bagera Donostiako Euskaltzaleen Elkarte

2002ko uztaila

AURKIBIDEA

1. Sarrera

1.1. Lan metodologia

2. Testu idatzia

2.1. Egitarau osatua

2.2. Fax oharrak

2.3. Web orria

2.4. Jazzaldiko kartela

2.5. Programak (Triptikoa eta orria)

2.6. JazzEuskadi

2.7. Bestelakoak

3. Aurkezpenak

4. Ondorioak

1. Sarrera

1998. urtean BAGERAk Donostiako Euskaltzaleen Elkartek, Donostiako Jazzaldian euskararen erabileraren inguruko lehen behaketa egin zuen eta orduz geroztik urtero aztertu du musika jaialdia.

Donostian aisialdian egiten diren hainbat ekintzek zer nolako hizkuntza erabilera duten aztertu ohi du BAGERAk.

Donostiak egunetik egunera euskarak dagokion lekua, presentzia eta indarra lor dezan ari garenez lanean, hiritarroi eskaintzen zaizkigun ekintzek euskararen zein erabilera duen neurtzea beharrezkoa da.

Jazzaldiaren funtsa, musika emanaldietan dagoen neurrian, ahozko hizkuntza erabilera saioen aurkezpenetara mugatzen da. Era berean, idatzizko materiala, oinarrizko esku liburuetara mugatu da batez ere.

Donostian egiten diren beste ekintza batzuek ez bezala, ahozko edo idatzizko hizkuntzak presentzia eskasa duen arren, erabilia den gunean aztertzeari ekin diogu, euskarak hauetan jasotzen duen tratamendua aztertu asmoz.

Behaketa eta bertatik ateratako emaitzak egoera baloratzeko bitartekoak besterik ez dira. Honela bada, garrantzia urtean zehar egindako lanak eta bertatik ateratzen diren emaitzek dute.

1.1. Lan metodologia

Denetara bost lagun aritu dira jarraipena egiten, euskararen ahozko erabilerarena batez ere, kontzertuetan agertuz eta idatzizko materiala aztertuz.

2. Testu idatzia

2.1. Jazzaldiaren egitarau osatua: Jazzaldiari buruzko informazioa luze zabalean azaltzen den liburua. Musikari eta talde bakoitzaren berri luze zabalean ematen da. Aurtengo edizioak 35 orrialde ditu.

Lehen orrialdean, azalean 2002ko kartela azaltzen da. Data elebitan azaltzen da, lehenik euskaraz eta ondoren gazteleraz eta Heineken 37. Jazzaldia azaltzen da. Azken orrian egitaraua ageri da modu laburrean. Hiru eletan idatzita dago lehenik euskaraz, ondoren gazteleraz eta azkenik ingelesez.

Sarrera elebitan idatzirik dago, lehenik euskaraz eta ondoren gazteleraz eta hitzez hitzezko itzulpena da, euskaraz eta gazteleraz informazio bera azaltzen da.

Egitaraua luze zabalean egunez egun eta tokiz toki azaltzen den informazioa elebitan dago, lehenik euskaraz eta ondoren gazteleraz.

Donostiako Jazzaldia saria, DV aretoa, erakusketak, eta turismo sorta ataletan informazioa lehenik euskaraz eta ondoren gazteleraz azaltzen da, hitzez hitzezko itzulpena da gainontzeko orrialdeetan bezala. Argibide orokorrak ere euskaraz eta gazteleraz ageri dira, lehenik euskaraz eta ondoren gazteleraz.

Iragarkiekin ez da testuarekin bezala gertatzen eta gaztelera da hizkuntza nagusia, bai egitarau osatuaren liburuxkan, baita kalean edo jazzaldiaren guneeetan topatutako edozein euskarritan.

Gaztelera hutsezko iragarkiak:

2 or. Frigo

7 or. San Juan de Luz laser

8 or. Universal

10 or. Cuadernos de Jazz editores, s.l.

12 or. Menabi

14 or. Diana Krall en concierto

18 eta 19 or. Heineken

28 or. El Diario Vasco

30 or. JazzEuskadi

33 or. (orrialde erdia) La Vanguardia

Euskara hutsezko iragarkiak:

20 or. Kutxa

Frantsesez edo ingelesezko iragarkiak:

24 or. Satchmo jazz records

32 or. Jazz Bayonne

Euskaraz eta gazteleraz azaltzen diren iragarkiak:

34 or. Getxoko Jazzaldia

Hizkuntzik gabekoak:

16 or. LocaliaTV eta 40 principales

2.2. Fax oharrak

Irutxulon jasotako faxa, sarrera gehiagoren salmenta iragartzen, gaztelera hutsean iritsi da. Jasotako gainontzeko fax oharrak elebitan iritsi dira.

2.3. Web orria

www.jazzaldia.com helbidean sartuz gero, pantailan ageri den hizkuntza gaztelera da. Ondoren, euskara edota ingelesa aukera daitezke.

2.4. Jazzaldiko kartela

Aurtengo Jazzaldia iragartzeko kartela, egitaraua luze zabalean ageri den liburuaren azala da. Azaltzen den informazioa laburra bada ere, euskaraz eta gazteleraz dago.

2.5. Programak (Triptikoa eta orria)

Bai triptiko txikian baita orrialdeko programan, datak, lekuak eta bestelako oharrak ere hirueletan azaltzen dira. Lehenik euskaraz eta gero gaztelera eta ingelesez.

2.6. JazzEuskadi

Getxo, Gasteiz eta Donostiako jazzaldien berri ematen duen 6 orrialdetako (DIN A4koa) triptikoa da. Guztia gaztelera hutsean dago, ez dago euskarazko hitz bakar bat ere.

2.7. Bestelakoak

Zurriola eta Kursaal gunean dauden postuetan (tiketerak, tabernak, informazio postua,...) prezioen zerrendak gaztelera hutsez daude. Zerrenda hauetaz gain dauden beste ohar txartelak 4 hizkuntzetan daude (tiketak hemen eta tabernan dagoen beste ohartxo bat). Zurrioloako hondartzako eszenatoki berdean, “escenario verde” soilik jartzen du.

Jazzaldiko kotxe ofizialetan “vehículo comercial oficial del festival” jartzen du, egindako iragarkietan bezalaxe hemen ere gazteleraz bakarrik irakur zitekeen.

Bestetik, “Desfile de grandes figuras en el Festival de Jazz de San Sebastian” izenburua duen 6 orrialdetako triptiko bat argitaratu da, hau ere guztiz gazteleraz dago.

3. Aurkezpenak

Aurkezpenak izan diren kasuetan elebitan izan dira, lehenik euskaraz eta ondoren gazteleraz.

Ondoren interprete bakoitzak bere hizkuntza erabili du, gehienak atzerriko hizkuntza. Trinitate enparantzan izandako emanaldietan talde batek erabili zuen gaztelera. Bestetik, aipamen moduan, Zurriola eta Kursaal terrazan baita Trinitate enparantzan eskainitako emanaldietan, talderen batek, nahiz eta emanaldia bera atzerriko hizkuntzan izan, jendea agurtzeko orduan gabon esanaz euskara kontuan hartu duenik egon da.

4. Ondorioak

Idatzizko materialaren kasuan elebitasuna nagusi da eta lehenengo hizkuntza orohar euskara da: Jazzaldiaren egitarau osatua, egitarau laburtua, Elebietan dauden testuak (euskaraz eta gazteleraz), bata bestearen itzulpen literalak dira. Eta beti lehenik euskaraz eta ondoren gazteleraz.

Web orriaren kasuan, gaztelera da lehenengo hizkuntza eta ondoren aukeratzeko aukera ematen du euskaraz nahiz frantsesez.

Iragarkiei dagokienez, egitarau osatuan ageri den liburuan, hamabost iragarkietatik hamar gaztelera hutsez daude, eta bakar bat euskara hutsez. Emanaldietan azaldu diren iragarkiak ere gaztelera hutsez ziren.

Irutxulon, faxa bidez, jasotako ohar bat gaztelera hutsean izan da, gainontzekoak elebitan iritsi dira.

Ahozko hizkuntzari dagokionez (aurkezpenak), elebitasuna mantendu da, lehenengo hizkuntza euskara izanik eta ondoren gaztelera.

Laburbilduz, emaitza orokorrean baikorra da, oro har elebitasuna mantendu delako bai aurkezpenetan baita idatzizko materialean. Iragarkien kasuan aurrerapausoak emateko daude, hamabost iragarkietatik soilik bitan erabili baita euskara. Hala ere oraindik badaude detaile txikiak euskararen erabilera galtzen dena (prezioen zerrendak, prentsa oharren bat, triptiko bat gaztelera hutsean, ...)

Proposamena

BAGERAk testuak itzulpen soilak beharrean, hizkuntza bakoitzean informazio propioa eskaintzea proposatzen du.

Iragarkiei dagokienez, Jazzaldiko antolatzaileek iragarkia egiten duten enpresei gutxienez elebitasuna mantendu dezaten eskatu beharko liekela uste dugu. Jazzaldia irauten duen egunetan, Donostia iragarkiz betetzen zaigu eta hizkuntz paisai guztiz erdalduna biltzen du hiria. Horregatik, datorren urtean aipaturiko hizkuntz paisaia gehiago euskalduntzeko saiakera egitea animatzen zaituztegu.

BAGERAk Donostiako Jazzaldiko arduradurak zoriondu nahi ditu euskarari gune nabarmena eman diotelako eta erabilitako euskara maila ere txukuna delako. Era berean, orain artekoari eustez gain, euskara gehiago indartzera animatu nahi ditugu Jazzaldiko antolatzaileak.

Donostian, 2002ko uztailan